



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2023ko azaroaren 17a

36. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- 11-23/ITP-00020. Interpelazioa, migrazioaren arloko fluxu, mugimendu eta politiken inguruko politika orokorrari buruzkoa. María Roncesvalles Solana Arana andreak egin du (3. or.).
- 11-23/ITP-00021. Interpelazioa, enpleguari eta desgaitasunari buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (4. or.).
- 11-23/ITP-00022. Interpelazioa, autonomoendako laguntza eta akonpainamenduko politikei buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (4. or.).

F SAILA:

Galderak:

- 11-23/POR-00205. Galdera, gaixotasun hemorragiko epizootikoak Nafarroan duen eraginari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (5. or.).
- 11-23/POR-00208. Galdera, iktusaren arreta integralari ekiteko plan estrategikoari buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (6. or.).
- 11-23/POR-00225. Galdera, Eliza katolikoaren arloan abusuak jasan dituzten biktimen aitortpenerako Nafarroan garatzen ari den lana dela-eta Arartekoak egindako txostenari buruzkoa. María Aranzazu Biurrun Urpegui andreak egin du (6. or.).
- 11-23/POR-00226. Galdera, mendekotasunaren balorazioak ebazteko batezbesteko epea handitzeari buruzkoa. Javier Arza Porras jaunak egin du (7. or.).
- 11-23/POR-00228. Galdera, 2023rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 35/2022 Foru Legearen hogeita seigarren xedapen gehigarria betetzeari buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (8. or.).
- 11-23/POR-00234. Galdera, Nafarroako industriari egun duen egoerari eta industriako sektoreetan dagoen okupazio graduari buruzkoa. Mikel Asiain Torres jaunak egin du (8. or.).
- 11-23/POR-00235. Galdera, irailaren 12an gaixotasun hemorragiko epizootikoaz egin zen informazio eskaeraren ondotik hartutako prebentzio neurriei buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (9. or.).

- 11-23/POR-00236. Galdera, gaixotasun hemorragiko epizootikoak kaltetutako abeltzaintzat aurreikusi diren neurri eta kalte-ordainei buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (10. or.).
- 11-23/POR-00237. Galdera, osasun-arreta espezializatuaren arloko itxaronaldien bermeei buruzko uztailaren 2ko 14/2008 Foru Legearen 3. artikulua betetzeko hartuko diren neurriei buruzkoa. María Teresa Nosti Izquierdo andreak egin du (10. or.).
- 11-23/PES-00189. Galdera, ailanto edo zeruko arbola landare inbaditzaileari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (11. or.).
- 11-23/PES-00191. Galdera, Nafarroako Ospitale Unibertsitarioko osasun-langileen bajak ordezteari buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (12. or.).
- 11-23/PES-00192. Galdera, hirigintzaren arloko legezketasuna berrezartzeko Kasedako Udalari irekitako espedientearen geldialdiari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (12. or.).
- 11-23/PES-00194. Galdera, Zubietako erraustegiko Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak Ecofert Sasoain SL enpresak Artaxoan duen plantan tratatzeko ematen dituen hondakinei buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (13. or.).
- 11-23/PES-00195. Galdera, 5/2023 Errege Lege-dekretuak Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuan egindako aldaketak direla-eta Nafarroako Foru Komunitateko plantilla publikoko langileen eskubideak parekatzeari buruzkoa. Miguel Garrido Sola jaunak egin du (15. or.).
- 11-23/PES-00196. Galdera, mutuetako afiliatuei edo onuradunei Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan Covid19agatik emandako arretaren kostuari buruzkoa. Domingo González Martínez jaunak egin du (16. or.).
- 11-23/PES-00197. Galdera, bularreko minbizi metastasikoa duten emakumeen arreta hobetzearen inguruan 2022ko urriaren 26an onetsitako mozioa betetzeari buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (17. or.).
- 11-23/PES-00198. Galdera, bularreko minbizi metastasikoa duten emakumeen arreta hobetzearen inguruan 2022ko urriaren 26an onetsitako mozioaren neurriak planifikatzeari buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (18. or.).
- 11-23/PES-00199. Galdera, garraio txartel bateratua abian jartzeari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (18. or.).
- 11-23/PES-00200. Galdera, Kataluniari zorra barkatuz gero Nafarroan izan daitekeen eragin ekonomikoari buruzkoa. Irene Royo Ortín andreak egin du (19. or.).
- 11-23/PES-00201. Galdera, Tuterako Ospitaleko telebista-zerbitzu doakoari buruzkoa. Irene Royo Ortín andreak egin du (19. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- 11-23/ELC-00009. Nafarroako Parlamentuak Euskararen Nafar Kontseilurako izendatu beharreko bost kide hautatzea. Hautagaitzak aldarrikatzea (20. or.).
- 11-23/ELC-00011. Lurralde Politikaren Gizarte Kontseiluan Nafarroako Parlamentuak hautatu behar dituen bi kideak hautatzea. Hautagaitzak aldarrikatzea (21. or.).
- 11-23/ELC-00012. Nafarroako Parlamentuak izendatu beharreko Nafarroako Kontseiluko kide bat hautatzea (21. or.).
- 11-23/ELC-00013. Nafarroako Parlamentuak izendatu beharreko Nafarroako Kontseiluko kide bat hautatzea (23. or.).

J SAILA:**Ponentziak:**

- 11-23/PON-00005. Proposamena, jaiotze-tasaren jaitsiera eta horrek erronka demografikoan duen eragina aztertzeke Ponentzia bat eratzekoa. Lehendakaritza eta Berdintasun Batzordeak ezetsi du (24. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-23/ITP-00020. Interpelazioa, migrazioaren arloko fluxu, mugimendu eta politiken inguruko politika orokorrari buruzkoa

MARÍA RONCESVALLES SOLANA ARANA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko azaroaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Roncesvalles Solana Arana andreak egindako interpelazioa, migrazioaren arloko fluxu, mugimendu eta politiken inguruko politika orokorrari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2023ko azaroaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari María Roncesvalles Solana Arana andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten du, Etxebizitza, Gazteria eta Migrazio Politiketako kontseilariak Legebiltzarraren Osoko Bilkuran erantzun dezan:

Une bereziki kritikoa bizi dugu migrazio-fluxuei dagokienez. Azken hilabeteetan, hainbat faktoreren ondorioz, milaka eta milaka pertsonak haien jatorrizko herrialdea utzi behar izan dute, eta bidaia legitimo bat hasi dute, jakin gabe amaierara iritsiko den. Geroa Bain "inor ez da ilegala" printzipioa defendatzen dugu. Hori abiapuntu hartuta, benetako dramak ikusten ari gara, heriotza- eta deshumanizazio-datu onartezinak. Horren guztia- ren aurrean Espainiako Estatuak emandako erantzunak zalantzak sortzen dizkigu, baita ziurgabetasuna eta ezinegona ere.

Horregatik guztiagatik, premiazkoa eta lehen- tasunezkoa dela iritzita, Geroa Baik honako hau proposatzen du: hirugarren lehendakariorde eta Etxebizitza, Gazteria eta Migrazio Politiketako kontseilari Begoña Alfaro andreari interpelazioa aurkeztea, Nafarroako Gobernuak migrazio-fluxu, -mugimendu eta -politiken inguruan gauzatu, ezarri eta garatzea aurreikusita duen politika orokorrari buruzkoa: fluxuei aurre egiteko erantzuna, asilo-eskaerak, Nafarroa harrera-lurraldea, Estatu- ko Gobernuaren erabakiak eta haren jardunaren edo jardun-ezaren ondorioak, eta abar.

Iruñean, 2023ko azaroaren 3an

Foru parlamentaria: María Roncesvalles Solana Arana

11-23/ITP-00021. Interpelazioa, enpleguari eta desgaitasunari buruzkoa

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko azaroaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak egindako interpelazioa, enpleguari eta desgaitasunari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2023ko azaroaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioko Maribel García Malo andreak, Legebil-

tzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Zioen azalpena.

Lan-merkatuan parte hartzea da autonomia ekonomikoa eta gizarteratzea bermatzeko modurik onena. Hala ere, CERMINEk antolatutako "Enplegu publikoa eta desgaitasuna" jardunaldian agerian geratu da lan egiteko adinean dauden eta desgaitasuna duten pertsonen ezaugarri nagusietako bat dela parte hartze txikia dutela lan-merkatuan.

Hori dela-eta, Nafarroako Gobernuari interpelazioa aurkezten diogu enplegu eta desgaitasunari buruz.

Iruñean, 2023ko azaroaren 8an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

11-23/ITP-00022. Interpelazioa, autonomoendako laguntza eta akonpainamenduko politikei buruzkoa

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko azaroaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak egindako interpelazioa, autonomoendako laguntza eta akonpainamenduko politikei buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2023ko azaroaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikitako

Maribel García Malo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Zioen azalpena.

Azken datuen arabera, urrian gure erkidegoan 46.784 langile autonomo ari dira lanean beren negozioei eusteko ingurune konplexu eta aldakor batean, zeinetan egokitzapena eta laguntza ezinbestekoak baitira bizirik irauteko.

Hori dela eta, Nafarroako Gobernuari interpelazioa aurkezten diogu gure erkidegoan autonomoak laguntzera eta babestera zuzendutako politikei buruz.

Iruñean, 2023ko azaroaren 9an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

F saila:
GALDERAK

11-23/POR-00205. Galdera, gaixotasun hemorragiko epizootikoak Nafarroan duen eraginari buruzkoa

MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko azaroaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galdera, gaixotasun hemorragiko epizootikoak Nafarroan duen eraginari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2023ko azaroaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikia dagoen eta Nafarroako Gortee-tako kide den Miguel Bujanda Cirauqui jaunak honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gober-nuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kon-tseilariari, batzordean ahoz erantzun dezan: zein da gaixotasun hemorragiko epizootikoaren eragi-nak Nafarroan egun duen egoera erreala?

Iruñean, 2023ko azaroaren 7an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

11-23/POR-00208. Galdera, iktusaren arreta integralari ekiteko plan estrategikoari buruzkoa

LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko azaroaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, iktusaren arreta integralari ekiteko plan estrategikoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osasun Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2023ko azaroaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Leticia San Martín Rodríguez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak batzordean ahoz erantzun dezan:

Zertan da Nafarroan iktusaren arretari ekiteko plan estrategikoaren ezarpena, zeina PSNek aurkeztutako mozio baten bidez 2021eko abenduaren 21ean Nafarroako Parlamentuak aho batez onetsi baitzuen, eta zer aurreikuspen darabil Osasun Departamentuak plana osorik ezartzeari begira?

Iruñean, 2023ko azaroaren 9an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

11-23/POR-00225. Galdera, Eliza katolikoaren arloan abusuak jasan dituzten biktimen aitortzerako Nafarroan garatzen ari den lana dela-eta Arartekoak egindako txostenari buruzkoa

MARÍA ARANZAZU BIURRUN URPEGUI ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko azaroaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Aranzazu Biurrun Urpegui andreak egindako galdera, Eliza katolikoaren arloan abusuak jasan dituzten biktimen aitortzerako Nafarroan garatzen ari den lana dela-eta Arartekoak egindako txostenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko azaroaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Arantza Biurrun Urpegui andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Joan den urriaren 27an, Ángel Gabilondo Espainiako Arartekoak Eliza katolikoaren esparruko sexu-abusuei eta botere publikoen zereginari buruzko Txostena aurkeztu zuen.

Nafarroa aitzindaria izan da, aurreko legegintzaldian onetsi baitzuen uztailearen 5eko 24/2022 Foru Legea, Eliza katolikoaren barnean gertatutako sexu-abusuen biktimei errekonozimendua adieraztekoa. Lege horren babesean, Nafarroako Eliza katolikoaren barnean osotasun fisikoaren, ukigabetasunaren eta sexu-askatasunaren aurka-

ko erasoen biktimen errekonozimendurako aditu-
tuen batzorde bat eratu zen.

Zer balorazio egiten du Departamentuak Arar-
tekoak aurkeztutako txostenari buruz, Nafarroan
Eliza katolikoaren eremuan gertatutako abusuen
biktimak aitortzeko egiten ari den lanari dagokio-
nez?

Iruñean, 2023ko azaroaren 3an

Foru parlamentaria: Arantza Biurrun Urpegui

11-23/POR-00226. Galdera, mendekotasunaren balorazioak ebazteko batez-besteko epea handitzeari buruzkoa

JAVIER ARZA PORRAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko
azaroaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Ba-
tzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen,
besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier Arza Porrás
jaunak egindako galdera, mendekotasunaren
balorazioak ebazteko batez-besteko epea handi-
tzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziale-
an argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko azaroaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxi-
kitako foru parlamentari Javier Arza Porrás jau-
nak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritako-
aren babesean, honako galdera hau aurkezten
du, Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko
eta Enpleguko kontseilari Carmen Maeztu Villa-
franca andreak Osoko Bilkuran ahoz erantzun
dezan: zer neurri hartuko ditu zure Departamen-
tuak 2017. eta 2023. urteen artean mendekota-
sun-balorazioak ebazteko batez besteko epean
izan den igoerari erantzuteko?

Iruñean, 2023ko azaroaren 3an

Foru parlamentaria: Javier Arza Porrás

11-23/POR-00228. Galdera, 2023rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 35/2022 Foru Legearen hogeita seigarren xedapen gehigarria betetzeari buruzkoa

LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko azaroaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, 2023rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 35/2022 Foru Legearen hogeita seigarren xedapen gehigarria betetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osasun Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2023ko azaroaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Leticia San Martín Rodríguez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak batzordean ahoz erantzun dezan:

Zer urrats egin ditu Osasun Departamentuak 2023rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 35/2022 Foru Legearen hogeita seigarren xedapen gehigarriari dagokionez, eta zer aurreikuspen ditu hurrengo hilabeteetan xedapen horren aplikazioaren inguruan?

Iruñean, 2023ko azaroaren 4an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

11-23/POR-00234. Galdera, Nafarroako industriak egun duen egoerari eta industriako sektoreetan dagoen okupazio graduari buruzkoa

MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko azaroaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Asiain Torres jaunak egindako galdera, Nafarroako industriak egun duen egoerari eta industriako sektoreetan dagoen okupazio graduari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko azaroren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Asiain Torres jaunak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Duela egun batzuk jakin zen Nafarroako industriak landunen beste errekor bat lortu zuela.

Lantegietan ia 71.000 langile daude, batez ere nekazaritzako elikagaien sektoreak bultzatuta, manufaktura-enplegu berriaren ia erdia sortu baitu.

Eta hori guztia European izaten ari den ahulezia gorabehera; izan ere, European ekonomia % 0,1 hazi da, eta Estatu Batuetan, aldiz, % 5. Hazkundera txikiko ingurune horrek Nafarroako industriari eragin diezaioke, datu positibo horiek gorabehera.

Hori dela eta, Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitaleko kontseilari Mikel

Irujori honako hau galdetzen diogu: zer analisi egin duzu Nafarroako industriaren egungo egoerari buruz, eta nola baloratzen duzu Foru Komunitateko industria-sektoreetako okupazio maila?

Iruñean, 2023ko azaroaren 6an

Foru parlamentaria: Mikel Asiain Torres

11-23/POR-00235. Galdera, irailaren 12an gaixotasun hemorragiko epizotikoaz egin zen informazio eskaeraren ondotik hartutako prebentzio neurriei buruzkoa

MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko azaroaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galdera, Irailaren 12an gaixotasun hemorragiko epizootikoaz egin zen informazio eskaeraren ondotik hartutako prebentzio neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2023ko azaroaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikia dagoen eta Nafarroako Gorteko kide den Miguel Bujanda Cirauqui jaunak honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernu Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariari, batzordean ahoz erantzun dezan: zer prebentzio-neurri hartu dira Unión del Pueblo Navarrok irailaren 12an informazio-eskaria egin zuenetik (11-23/PEI-00246)?

Iruñean, 2023ko urriaren 7an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

11-23/POR-00236. Galdera, gaixotasun hemorragiko epizootikoak kaltetuta-ko abeltzaintzat aurreikusi diren neurri eta kalte-ordainei buruzkoa

MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko azaroaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galdera, gaixotasun hemorragiko epizootikoak kaltetutako abeltzaintzat aurreikusi diren neurri eta kalte-ordainei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2023ko azaroaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikia dagoen eta Nafarroako Gortee-tako kide den Miguel Bujanda Cirauqui jaunak honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gober-nuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kon-seilariari, batzordean ahoz erantzun dezan: zer neurri jarriko dira abian gaixotasun hemorragiko epizootikoak kaltetutako abeltzaintzat? Kalte-ordainik ematea aurreikusita al duzue?

Iruñean, 2023ko urriaren 7an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

11-23/POR-00237. Galdera, osasun-arreta espezializatuaren arloko itxaronaldien bermeei buruzko uztailaren 2ko 14/2008 Foru Legearen 3. artikulua betetzeko hartuko diren neurriei buruzkoa

MARÍA TERESA NOSTI IZQUIERDO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko azaroaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Nosti Izquierdo andreak egindako galdera, osasun-arreta espezializatuaren arloko itxaronaldien bermeei buruzko uztailaren 2ko 14/2008 Foru Legearen 3. artikulua betetzeko hartuko diren neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko azaroaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Vox Nafarroa foru parlamentarien elkartearen ededun eta Nafarroako Gorteetako kide María Teresa Nosti Izquierdo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 209. artikuluetan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan: zer neurri hartuko dira benetan bete dadin Osasun-laguntza Espezializatuko Itxaronaldietako Bermeei buruzko uztailaren 2ko 14/2008 Foru Legearen 3. artikulua?

Iruñean, 2023ko azaroaren 7an

Foru parlamentaria: María Teresa Nosti Izquierdo

11-23/PES-00189. Galdera, ailanto edo zeruko arbola landare inbaditzaileari buruzkoa

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko azaroaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galdera, ailanto edo zeruko arbola landare inbaditzaileari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko azaroaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta idatziz erantzun dakien:

Ailantoa edo zeruko zuhaitza (*Ailanthus altissima*) tamaina handiko zuhaitz bat da, parke eta lorategietan landare apaingarri gisa asko erabiltzen dena, ez bakarrik itxura ikusgarriagatik (ehunka mila fruitu ditu, uda amaieran kolore laranja politaz tindatzen direnak), baita bere erabilgarritasunagatik ere: oso hostotsua da, itzal-eremu handiak eskaintzen ditu, eta sustrai indartsu eta trinkoek oso ondo eusten diote substratuari, higadura saihestuz edo ezpondak finkatuz.

Txinatik datorren zuhaitz honek alde oso ilun bat du. Espezie inbaditzailea da, eta presente dago Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioaren Espezie Exotiko Inbaditzaileen Katalogoan eta, 2019tik, Europar Batasunerako Espezie Kezkagarrien zerrendan eta Nafarroan hautemandako Espezie Exotiko Inbaditzaileen Katalogoan.

Zenbait ezaugarriren ondorioz, zeruko zuhaitza inbaditzaile bikaina da. Alde batetik, fruituak. Ale heldu bakoitzak urtean 350.000 eta 500.000 fruitu artean sor ditzake, gehienak bideragarriak. Fruitu motari samara esaten zaio, lizarrek edo zumarrek duten mota bera. Fruitu lehorra da, hazia erdian jarrita duena, eta hegal itxura hartzen

duten eta haizeak sakabanatzea errazten duten zabaltze lautuak dituena.

Ailantoa oso ondo errotuta dago bai ibaien eta erreken ertzetan, bai ezpondetan, errepide eta bideen ondoan. Gainera, ailantoek substantzia alelopatiko batzuk sortzen dituzte sustraien eta hosto hilen bitartez, eta horiek beste landare batzuen hazkundera inhibitzen dute, eta horrek, neurri handi batean, espazioarekiko lehia errazten die.

Landare inbaditzaileek eragiten duten inpaktua askotan ez da oso hautemangarria. Zeruko zuhaitzak eragiten dituen inpaktuek lotura dute bertako espezieei eragindako kalteekin, ekosistemei eragindako perturbazioekin eta kalte sozioekonomikoekin.

Espezie Exotiko Inbaditzaileen Espainiako Katalogoa arautzen duen 630/2013 Errege Dekretu berak bosgarren xedapen iragankorrean adierazten duenez, «parke edo lorategi publikoetan kokatutako katalogoko espezieen alean kasuan (...) administrazio eskudunek pixkanaka kenduko dituzte espezie horiek, justifikatuta dauden kasuetan».

Zeruko zuhaitza katalogo honetan dago 2013an indarrean jarri zenetik. Arrazoizko epea dirudi jada horiek kentzeko eta bertako zuhaitzekin ordeztzeko.

Hori dela-eta, honako galdera hauek egiten ditut, idatziz erantzun dakien:

1.- Zer ekintza aurreikusi ditu Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak landare inbaditzaile hori kentzeko?

2.- Departamentuak lokalizatuta al ditu zeruko zuhaitza ugaria den Nafarroako eremuak?

3.- Ezagutzen al ditu Departamentuak toki erakundeek landare inbaditzaile horren aurrerapenaren aurka garatu ahal izan dituzten ekintzak?

4.- Departamentuak aurreikusi al du plan zehatzik Gobernuaren eta toki-erakundearen artean ailantoaren hedapenaren aurkako ekintzak koordinatzeko?

5.- Departamentuak kontrolatuta al du landare horren salmenta mintegietan eta landareak saltzeko dendetan? Antzeman al du inoiz landare horren salmentarik?

Iruñean, 2023ko azaroaren 3an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

11-23/PES-00191. Galdera, Nafarroako Ospitale Unibertsitarioko osasun-langileen bajak ordeztari buruzkoa

LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko azaroaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, Nafarroako Ospitale Unibertsitarioko osasun-langileen bajak ordeztari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko azaroaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Leticia San Martín Rodríguez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako idatzizko galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari: gaur egun Nafarroako Unibertsitate Ospitaleko osasun-langileen bajak ez ordezteko arrazoiak.

Iruñean, 2023ko azaroaren 4an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

11-23/PES-00192. Galdera, hirigintzaren arloko legezketasuna berrezartzeko Kasedako Udalari irekitako espedientearen geldialdiari buruzkoa

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko azaroaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galdera, hirigintzaren arloko legezketasuna berrezartzeko Kasedako Udalari irekitako espedientearen geldialdiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko azaroaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek

aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta idatziz erantzun dakien:

Lurralde Kohesioko kontseilariak hainbat galdera erantzun ditu, Kasedako Udalak gauzatutako jarduketan aurrean Lurralde Antolaketako Zuzendaritza Nagusiak hirigintzaren arloko legezketasuna berrezartzeko izapidetutako espedienteari buruzkoak, zuzendaritza nagusi horrek ezarritako eraispen-agindua betetzeari uko egin baitio Kasedako Udalak.

Erantzunak ikusita, honako galdera hauek egiten ditut, idatziz erantzun dakien:

1.- Zein administrazio-egintzaren bidez erabaki da hirigintzaren arloko legezketasuna berrezartzeko espedientea geldiaraztea? Zein agintaritzak eman du administrazio-egintza hori?

2.- Geldiarazteko administrazio-egintzarik ez badago, zein da Departamentuak hirigintzaren arloko legezketasuna berrezartzeko espedientea geldiarazteko egindako egitezko jarduketa horri

babesa ematen dion oinarri juridikoa, gure talde parlamentarioari erantzun zaion bezala?

3.- Geldiarazpen horrek esan nahi al du ez zaiola hertsapen-isun gehiagorik jarriko Kasedako Udalari harik eta Ondare Historikoaren Zerbitzuak udal horrek eskatutakoa ebatzi arte?

4.- Ondare Historikoaren Zerbitzuak ebazten ez badu, Kasedako Udalari legezketasuna

berrezartzeko irekitako espedienteari dagokionez Departamentuak "aldi baterako geldiarazteko" hartutako egitezko erabakia behin betiko geldiarazpen bihurtuko al da?

Iruñean, 2023ko azaroaren 6an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

11-23/PES-00194. Galdera, Zubietako erraustegiko Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak Ecofert Sansoain SL enpresak Artaxoan duen plantan tratatzeko ematen dituen hondakinei buruzkoa

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko azaroaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galdera, Zubietako erraustegiko Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak Ecofert Sansoain SL enpresak Artaxoan duen plantan tratatzeko ematen dituen hondakinei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko azaroaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkeztu dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta idatziz erantzun dakien:

Duela gutxi prentsa-argitalpenen bidez jakin dugu Lorena Arozena Alonso Gipuzkoako Ingurumeneko fiskal nagusiak egindako salaketa baten ondoren Gipuzkoako Aldundiaren ingurumeneko eta jasangarritasuneko eta Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoko arduraduna den diputatua ikeritu egingo dutela Donostiako 5. Instrukzio Epaitegiak irekitako eginbide batzuen ondorioz, "ingurumenaren aurkako delitu baten eta agiri-faltsutasunaren" akusaziopean.

Fiskaltzak aurkeztutako idazkiaren jatorria GuraSOsek joan den ekainaren 9an aldez aurretik aurkeztutako beste bat da. Horren arabera, "Udal-hondakinen balorazio energetikorako Zubietako instalazioak hondakin arriskutsuak sortu zituen 2022an, eta ingurumen-organoak (GHK) ez du baimentzen Zubietako instalazioetan horiek sortzea". Salaketaren arabera, "jardunbide hori ezkutatzeko" GHK-k antza hondakin horiek "Ingurumena Zaintzeko Programaren Oroitidazkian" sartu zituen, "kode bat eta hondakin-kontzeptu oker bat emanez modu kontzientean".

Partzuergoak antza "Encofert Sansoain SL enpresari enkargatu zion hondakin horien parte bat tratatzea". Enpresa horrek Nafarroako Artaxoa herrian du egoitza, eta nekazaritzako ongarriak egiteko konposta fabrikatzen du, baina "ez du hondakin arriskutsuak kudeatzeko baimenik". Fiskaltzak uste du egitate horiek ingurumenaren aurkako delitua izan daitezkeela, bai eta dokumentuak faltsutzearen delitua ere.

EHZ kodea Europako Hondakinen Zerrendako kodea da. Jardueren arabera identifikatzen du hondakinen tipologia, eta hondakin-tipologia desberdinen trafikoa eta kudeaketa egokia kontrolatzeko balio du. Bere izendapenetik ondorioztatzen denez, zerrenda Europar Batasunak arautzen du, eta, zehazki, Batzordearen abenduaren 18ko 2014/955/EB Erabakiak, hondakin bat zerrendan zuzen sailkatzeko jarraitu beharreko prozedura ezartzen duenak.

Europako arauak, lehenik eta behin, behartzen du "Hondakinak sortzen dituen iturria lokalizatzerako 01etik 12ra bitarteko kapituluetan edo 17tik 20ra

bitartekoetan, eta hondakinarentzat sei zifra kode egokia bilatzera". Jarduera-kapitulu bakoitzaren barruan kodeen zerrenda bat ematen da, eta horietan sortutako kodea bertan sartu behar da. Erraustegien kasuan, hamar bat aukera eskaintzen dira hondakina kalifikatzeko. Kasu honetan, sailkatzeko aukera bakarra dago: 190106* kodea da, "Gasak eta bestelako hondakin likido urtsuak tratatzearen ondoriozko hondakin likido urtsuak", erraustegi baten jardueran sortutako hondakin urtsua baita (prozesu-urak). Kodeak izartxo bat du, hondakina hondakin arriskutsu gisa definitzen duena.

Aurkeztutako salaketaren arabera, Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoak 1908 kodea baliatu zuen, hau da, hondakin-urak tratatzeko instalazioei dagokiena (araztegiak). Eta hondakina deskribatzerakoan, beste kontraesan bat sortzen da erabilitako EHZ kodearen eta deskribapenaren artean; izan ere, "hondakin solidoen tratamendu aerobikoan" sortutako lixibiatu gisa definitzen dira, baina Europako Zerrendan 1905 kodea esleituta du. Erabilitako kodea (EHZ 190812) "industriako hondakin-uren tratamendu biologikotik sortutako lohiak" dira, eta kasu honetan lixibiatuak dira, ez lohiak, eta, gainera, hondakinak tratatzeko instalazio batetik datoz, ez araztegi batetik.

Hondakin horien tratamenduaren zati bat Artaxoako Ecofert Sansoain SL enpresan egiten da. Hondakin ez-arriskutsuen kudeatzaile bat da. Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoak euskal ingurumen-organoari bidalitako informazioaren arabera, EHZ 190812 kodearekin tratatutako hondakin-kopurua 2.160.520 kg da, eta helmugan jaso beharreko tratamendua hauxe: R3 disolbatzaile gisa erabiltzen ez diren substantzia organikoak berreskuratzea.

Ecofert Sansoain SL enpresak nekazaritzako ongarriak egiteko konposta fabrikatzen du, eta ezin du hondakin arriskutsurik kudeatu. Kezkagarria da nekazaritza-ekoizpena eta, beraz, elika-

gaienera zuzendutako produktu batek erraustegi batek sortutako hondakinak jasotzea, eta, gainera, ez dago jasota horren izaera ez-arriskutsuaren azterketarik edo egiaztapenik exijitu denik.

Horrenbestez, honako galdera hauek egiten ditut, idatziz erantzun dakien:

1.- Ezagutzen al du Nafarroako Gobernuak Fiskaltzak Donostiako Instrukzioko Epaitegian aurkeztu duela?

2.- Donostiako Instrukzio Epaitegiak eskatu al dio horri buruzko lankidetza edo informazioa eman dezala?

3.- Prentsan argitaratutako informazioa ikusita, Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoak ematen dituen hondakinak kontrolatzeko neurririk hartu al du Nafarroako Gobernuak?

4.- Ba al daki Ecofert Sansoain SL enpresak Zubietako Erraustegitik etorri eta Nafarroako Hondakinen Partzuergotik jasotzen duen lixibiatuari buruzko azterketarik eskatu duen?

5.- Ba al daki Nafarroako Gobernuak Artaxoako plantan "Gasen tratamenduko hondakin likido urtsuak eta bestelako hondakin likido urtsuak" edo "Industriako hondakin-uren tratamendu biologikoaren ondoriozko lohiak" entregatzen direla?

6.- Bat al dator Departamentua erraustegi batetik datozen lixibiatu horiek EHZ hondakin ez-arriskutsutzat kalifikatzearekin, kalifikazioa ezen Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoak eman baitio EHZ 190812 kodea duten hondakinak direla irizita?

7.- Aurreikusita al du Gobernuak ikuskapen-bisitarik egitea Artaxoako instalazioetara, hondakin horiek zer diren jakiteko eta modu ofizialean lixibiatuen analisisa egiteko, zehazte aldera hondakin arriskutsuak diren ala ez?

Iruñean, 2023ko azaroaren 7an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

11-23/PES-00195. Galdera, 5/2023 Errege Lege-dekretuak Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuan egindako aldaketak direla-eta Nafarroako Foru Komunitateko plantilla publikoko langileen eskubideak parekatzeari buruzkoa

MIGUEL GARRIDO SOLA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko azaroaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Garrido Sola jaunak egindako galdera, 5/2023 Errege Lege-dekretuak Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuan egindako aldaketak direla-eta Nafarroako Foru Komunitateko plantilla publikoko langileen eskubideak parekatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko azaroaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Miguel Garrido Sola jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako idatzizko galdera hau egiten du:

Ekainaren 28ko 5/2023 Errege Lege Dekretuaren II. Liburuko II. Tituluan aldaketak egiten zaizkio Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuari. Aldaketa horien artean, 5 egunera arte luzatzen dira istripu edo gaixotasun larriaren, ospitaleratzearen, heriotzaren edo ospitaleraterik gabeko ebakuntza kirurgikoarengatik baimenak. Gure ustez, Nafarroak Funtzio Publikoaren arloko eskumen eskusiboa duenez, aldaketa horiek ez dira aplikatzekoak Foru Komunitateko enplegatu publikoentzat; beraz, hauxe galdetzen dugu:

1. Egin al da edo aurreikusita al dago erregelamendu-aldaketarik Foru Komunitateko plantilla publikoko langileen eskubideak lehen aipatutako Errege Lege Dekretuari jarraikiz estatu-mailan dituzten eskubideekin parekatzeko?

Iruñean, 2023ko azaroaren 8an

Foru parlamentaria: Miguel José Garrido Sola

11-23/PES-00196. Galdera, mutuetako afiliatuei edo onuradunei Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan Covid19agatik emandako arretaren kostuari buruzkoa

DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko azaroaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak egindako galdera, mutuetako afiliatuei edo onuradunei Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan Covid19agatik emandako arretaren kostuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko azaroaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Txomin González Martínez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan.

Osasun Sistema Nazionaleko Zerbitzu Komunen Zorroa eta hura gaurkotzeko prozedura ezarrituaren irailaren 15eko 1030/2006 Errege-dekretuaren IX. eranskinak jasotzen du osasun-laguntza noiz erreklamatzeko ahal zaien ordaintzera behartuta dauden hirugarrenei. Horien artean daude aseguru-entitateak eta funtzionario zibilen (MUFACE), militarren (ISFAS) eta judizialen (MUGEJU) mutuek.

Arau orokor gisa, osasun-itun horiek honako hau xedatzen dute: mutualitateetako afiliatu edo onuradun batek aseguru-etxeetatik kanpoko baliabideak erabiltzen dituzenean, bere erabakiz edo bere senideen erabakiz, "itzultzeko eskubiderik gabe" ordaindu beharko ditu osasun-prestazio horrek zentro ez-itunduetan (publikoak barne) eragiten dituen gastuak, salbu eta estaldura ematen dien konpainiak "laguntza arrazoirik gabe ukatu" bada edo ezinbesteko urgentzia bada.

Kasu horietan, aseguru-etxeak behartuta daude mutualistei bermatzera Osasun Sistema Nazionalaren zorroan sartutako zerbitzuak jasoko dituztela. Era berean, bermatuko da COVID-19ak eragindako osasun-arretari lotutako zerbitzuak ematea, zeinak Muface, Mugeju eta Isfas mutuen afiliatu edo onuradunek 2020., 2021. eta 2022. urteetan erabili baitituzte.

Horri buruz, parlamentari honek idatzizko galdera hauek egiten ditu:

– Zer kostu eragin dion Osasunbidea-NOZi Muface, Mugeju eta Isfaseko afiliatu edo onuradunei COVID-19a dela-eta Osasunbidea-NOZen emandako osasun-arretak.

– Osasun-arreta fakturatu ote zaien kasuan kasuko mutuei edo aseguru-enpresei.

– Mutua edo aseguru-etxe horietakoren batek uko egin ote dion fakturazioa ordaintzeari, zenbatek eta zenbatekoak diren kobratu gabeko fakturak.

Iruñean, 2023ko azaroaren 8an

Foru parlamentaria: Domingo González Martínez

11-23/PES-00197. Galdera, bularreko minbizi metastasikoa duten emakumeen arreta hobetzearen inguruan 2022ko urriaren 26an onetsitako mozioa betetzeari buruzkoa

LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko azaroaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, bularreko minbizi metastasikoa duten emakumeen arreta hobetzearen inguruan 2022ko urriaren 26an onetsitako mozioa betetzeari buruzkoa buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko azaroaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Zein da bularreko minbizi metastasikoaren arreta hobetzeari dagokionez talde guztiek aurkeztutako eta 2022ko urriaren 26ko Osoko Bilkuran onetsitako mozioaren 9 puntuen betetzearen xehetasuna eta zer plangintza du Osasun Departamentuak hobekuntza-puntu horiek bete daitezen?

Iruñean, 2023ko azaroaren 9an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

11-23/PES-00198. Galdera, bularreko minbizi metastasikoa duten emakumeen arreta hobetzearen inguruan 2022ko urriaren 26an onetsitako mozioaren neurriak planifikatzeari buruzkoa

LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko azaroaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, bularreko minbizi metastasikoa duten emakumeen arreta hobetzearen inguruan 2022ko urriaren 26an onetsitako mozioaren neurriak planifikatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko azaroaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Bularreko minbizi metastasikoaren arreta hobetzeari dagokionez talde guztiek aurkeztutako eta 2022ko urriaren 26ko osoko bilkuran onetsitako mozioaren 9 hobekuntza-puntuak betetze aldera, zer plangintza du Osasun Departamentuak?

Iruñean, 2023ko azaroaren 9an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

11-23/PES-00199. Galdera, garraio txartel bateratua abian jartzeari buruzkoa

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko azaroaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak egindako galdera, garraio txartel bateratua abian jartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko azaroaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko talde parlamentarioko eledun Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Lurralde Kohesiorako kontseilariak idatziz erantzun dakion: Noiz aurreikus-ten da garraio-txartel bateratua abian jartzea?

Iruñean, 2023ko azaroaren 9an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

11-23/PES-00200. Galdera, Kataluniari zorra barkatuz gero Nafarroan izan daitekeen eragin ekonomikoari buruzkoa

IRENE ROYO ORTÍN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko azaroaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Irene Royo Ortín andreak egindako galdera, Kataluniari zorra barkatuz gero Nafarroan izan daitekeen eragin ekonomikoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko azaroaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikitako Irene Royo Ortín andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Ogasuneko kontseilariak idatziz erantzun dakion: Azterlan bat egingo al da Kataluniari zorra barkatuz gero Nafarroan izan daitekeen eragin ekonomikoari buruz?

Iruñean, 2023ko azaroaren 9an

Foru parlamentaria: María Irene Royo Ortín

11-23/PES-00201. Galdera, Tuterako Ospitaleko telebista-zerbitzu doakoari buruzkoa

IRENE ROYO ORTÍN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko azaroaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Irene Royo Ortín andreak egindako galdera, Tuterako Ospitaleko telebista-zerbitzu doakoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko azaroaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikitako Irene Royo Ortín andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Osasuneko kontseilariak idatziz erantzun dakion: noiz emango duzue doan Tuterako Ospitalean telebista-zerbitzu doakoa, Iruñeko beste ospitale batzuetan gertatzen den bezala?

Iruñean, 2023ko azaroaren 9an

Foru parlamentaria: María Irene Royo Ortín

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

11-23/ELC-00009. Nafarroako Parlamentuak Euskararen Nafar Kontseilurako izendatu beharreko bost kide hautatzea

HAUTAGAITZAK ALDARRIKATZEA

2023ko azaroaren 13an eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuak Euskararen Nafar Kontseilurako izendatu beharreko bost kide hautatzeko arauekin bat, zeinak 2023ko urriaren 23ko Mahaiko erabakiaren bidez onetsi baitziren (25. NPAO, 2023-10-27koa), honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Nafarroako Parlamentuak Euskararen Nafar Kontseilurako izendatu beharreko bost kide hautatzeko hautagai gisa honako pertsona hauek aldarrikatzea:

– Juan Carlos Pikabea Zubiri jauna, titularra, eta Iñaki Iriarte López jauna, ordezkoa, Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioak proposatuta.

– Inmaculada Jurío Macaya andrea, titularra, eta Ainhoa Unzu Garate andrea, ordezkoa, Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak proposatuta.

– Bakartxo Ruiz Jaso andrea, titularra, eta Eneka Maiz Ulaiar andrea, ordezkoa, EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak proposatuta.

– Ana Luján Martínez andrea, titularra, eta María Roncesvalles Solana Arana andrea, ordezkoa, Geroa Bai talde parlamentarioak proposatuta.

– Ana Luján Martínez andrea, titularra, eta María Roncesvalles Solana Arana andrea, ordezkoa, Geroa Bai talde parlamentarioak proposatuta.

– Ane Sánchez Jiménez andrea, titularra, eta Ainhoa Aznárez Igarza andrea, ordezkoa, Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioak proposatuta.

2. Erabaki hau talde parlamentarioen eledunei helaraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2023ko azaroaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-23/ELC-00011. Lurralde Politikaren Gizarte Kontseiluan Nafarroako Parlamentuak hautatu behar dituen bi kideak hautatzea

HAUTAGAITZAK ALDARRIKATZEA

2023ko azaroaren 13an eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Lurralde Politikaren Gizarte Kontseilurako izendatu behar dituen bi kideak hautatzeko arauekin bat, zeinak 2023ko urriaren 30eko Mahaiko erabakiaren bidez onetsi baitziren (28. NPAO, 2023-11-03koa), honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Lurralde Politikaren Gizarte Kontseiluan izendatu beharreko bi kideak hautatzeko hautagai gisa honako pertsona hauek aldarrikatzea:

– Yolanda Ibáñez Pérez andrea, titularra, eta Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jauna,

ordezkoa, Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioak proposatuta.

– Javier Lecumberri Urabayen jauna, titularra, eta María Teresa Esporrín Las Heras andrea, ordezkoa, Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak proposatuta.

– Lola Eslava Serrano andrea, titularra, eta Adolfo Araiz Flamarique jauna, ordezkoa, EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak proposatuta.

2. Erabaki hau talde parlamentarioen eledunei helaraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2023ko azaroaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-23/ELC-00012. Nafarroako Parlamentuak izendatu beharreko Nafarroako Kontseiluko kide bat hautatzea

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko azaroaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrarekin bat, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Kontseiluko lehendakariak Parlamentu honi eskatu dio kontseilukide berri bat izendatzeko prozesua has dezan, Alfredo Irujo Andueza jaunaren kargualdia amaitzearen ondorioz.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduak ez du aurreikusten hautaketa horretarako arau berriazkorik. Hori dela-eta, Erregelamenduaren 42.1.9 artikularekin bat, Mahaiak eta Eledunen Batzarrak aipatu izendapena egiteko arauak onetsi behar dituzte.

Horretarako, Legebiltzarreko legelari nagusiak arau-proposamen bat prestatu du.

Hori horrela, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 42.1.9 artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrarekin adostu ondoren, honako hau ERABAKITZEN DA:

Lehena.- Nafarroako Parlamentuak izendatu beharreko Nafarroako Kontseiluko kide bat hautatzeko prozesua hastea.

Bigarrena.- Aipatu hautaketa egiteko arauak onestea. Hona arau horiek:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Kontseiluko kide bat hautatuko du, Foru Komunitateko lehendakariak izenda dezan, Nafarroako Kontseiluari buruzko ekainaren 9ko 8/2016 Foru Legean xedatutakoari jarraituz.

2. Hautagaiak izen aitortua duten juristak izan behar dira, gutxienez ere hamabost urteko lanbide-esperientziarekin eta nafar izaera politikoa daukatenak.

Nafarroako Kontseilukide izatea bateraezina da:

a) Nafarroako Gobernuako kide izatearekin.

b) Europako Batasuneko, Estatuko, autonomi erkidegoetako zein toki entitateetako erakundee-tako edozein kargu hautetsirekin.

c) Alderdi politiko, sindikatu edo enpresario erakundeetako edozein zuzendaritza-kargurekin.

d) Fiskal edo epaile karreretan jardunean egotearekin.

e) Herri lan edo zerbitzu publikoen emakidadun edo kontratista diren enpresetako edozein zuzendaritza-kargurekin.

3. Honako hauek proposatu ahalko dituzte hautagaiak: talde parlamentarioek edo foru parlamentarien elkarteek, Nafarroako abokatu-elkargoek edo, kasua bada, Nafarroako Abokatu Elkargoen Kontseiluak, eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gobernu Kontseiluak.

4. Hautagaiak Legebiltzarreko Mahaiari igorritako idazki baten bidez aurkeztu beharko dira. Idazki horretan jaso beharko dira proposatutako hautagaiaren onarpena eta Nafarroako Kontseiluaren kide izateko betekizun legalak betetzen dituelako eta bateraezintasun kausarik ez dagoelako aitortpenak.

5. **2023ko azaroaren 30eko 17:30ean bukatuko da** talde parlamentarioek edo foru parlamentarien elkarteek, abokatu-elkargoek eta Nafarroako Unibertsitate Publikoak hautagaiak aurkezteko epea.

6. Hautagaitzak aurkezteko epea bukatuta, Mahaiak kalifikatuko du ea proposatutako hautagaiak betetzen ote dituzten eskaturiko baldintzak, eta jarraian, kasua bada, hautagaiak aldarrikatuko ditu.

7. Aldarrikatutako hautagaiak, hautaketa egiten den Osoko Bilkuraren saioa egin baino lehen, arloan eskuduna den batzordean agertuko dira, beren merezimenduak azal ditzaten.

8. Nafarroako Kontseiluko kide berriaren hautaketa Legebiltzarreko Osoko Bilkuran egingen da, bozketa isilpekoaren bidez.

9. Txartelen bidez egingen da bozketa, eta foru parlamentari bakoitzak hautagai bakarraren izena bakarrik jarri ahalko du txartelean.

10. Mahaiak boto-kontaketa egin eta botoen gehiengo osoa lortzen duen hautagaia hautatu dela aldarrikatuko du.

11. Aipatu gehiengo lortzen ez bada, bozketa errepikatuko da, eta bigarren bozketa honetan hautagai bakar batek ere ez badu gehiengo osoa lortzen, prozedura bukatutzat eman eta prozesu berri bat hasi beharko da.

Hirugarrena.- Nafarroako Kontseiluari jakinaraztea kontseilukide berria hautatzeko prozesua hasi dela.

Laugarrena.- Arau hauek Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agintzea.

Iruñean, 2023ko azaroaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-23/ELC-00013. Nafarroako Parlamentuak izendatu beharreko Nafarroako Kontseiluko kide bat hautatzea

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko azaroaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrarekin bat, erabaki hau hartu zuen, bestek beste:

Nafarroako Kontseiluko lehendakariak Parlamentu honi eskatu dio kontseilukide berri bat izendatzeko prozesua has dezan, José Iruretagoyena Aldaz jaunaren kargualdia amaitzearen ondorioz.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduak ez du aurreikusten hautaketa horretarako arau berriazkorik. Hori dela-eta, Erregelamenduaren 42.1.9 artikuluekin bat, Mahaiak eta Eledunen Batzarrak aipatu izendapena egiteko arauak onetsi behar dituzte.

Horretarako, Legebiltzarreko legelari nagusiak arau-proposamen bat prestatu du.

Hori horrela, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 42.1.9 artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrarekin adostu ondoren, honako hau ERABAKITZEN DA:

Lehena.- Nafarroako Parlamentuak izendatu beharreko Nafarroako Kontseiluko kide bat hautatzeko prozesua hastea.

Bigarrena.- Aipatu hautaketa egiteko arauak onestea. Hona arau horiek:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Kontseiluko kide bat hautatuko du, Foru Komunitateko lehendakariak izenda dezan, Nafarroako Kontseiluari buruzko ekainaren 9ko 8/2016 Foru Legean xedatutakoari jarraituz.

2. Hautagaiak izen aitortua duten juristak izan behar dira, gutxienez ere hamabost urteko lanbide-esperientziarekin eta nafar izaera politikoa daukatenak.

Nafarroako Kontseilukide izatea bateraezina da:

a) Nafarroako Gobernuako kide izatearekin.

b) Europako Batasuneko, Estatuako, autonomi erkidegoetako zein toki entitateetako erakundee-tako edozein kargu hautetsirekin.

c) Alderdi politiko, sindikatu edo enpresario erakundeetako edozein zuzendaritza-kargurekin.

d) Fiskal edo epaile karreretan jardunean egotearekin.

e) Herri lan edo zerbitzu publikoen emakidatun edo kontratista diren enpresetako edozein zuzendaritza-kargurekin.

3. Honako hauek proposatu ahalko dituzte hautagaiak: talde parlamentarioek edo foru parlamentarien elkarteek, Nafarroako abokatu-elkargoek edo, kasua bada, Nafarroako Abokatu Elkargoen Kontseiluak, eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gobernu Kontseiluak.

4. Hautagaiak Legebiltzarreko Mahaiari igorritako idazki baten bidez aurkeztu beharko dira. Idazki horretan jaso beharko dira proposatutako hautagaiaren onarpena eta Nafarroako Kontseiluaren kide izateko betekizun legalak betetzen dituelako eta bateraezintasun kausarik ez dagoelako aitorpenak.

5. 2023ko azaroaren 30eko 17:30ean bukatuko da talde parlamentarioek edo foru parlamentarien elkarteek, abokatu-elkargoek eta Nafarroako Unibertsitate Publikoak hautagaiak aurkezteko epea.

6. Hautagaitzak aurkezteko epea bukatuta, Mahaiak kalifikatuko du ea proposatutako hautagaiak betetzen ote dituzten eskaturiko baldintzak, eta jarraian, kasua bada, hautagaiak aldarrikatuko ditu.

7. Aldarrikatutako hautagaiak, hautaketa egiten den Osoko Bilkuraren saioa egin baino lehen, arloan eskuduna den batzordean agertuko dira, beren merezimenduak azal ditzaten.

8. Nafarroako Kontseiluko kide berriaren hautaketa Legebiltzarreko Osoko Bilkuran egingen da, bozketa isilpekoaren bidez.

9. Txartelen bidez egingen da bozketa, eta foru parlamentari bakoitzak hautagai bakarraren izena bakarrik jarri ahalko du txartelean.

10. Mahaiak boto-kontaketa egin eta botoen gehiengo osoa lortzen duen hautagaia hautatu dela aldarrikatuko du.

11. Aipatu gehiengo lortzen ez bada, bozketa errepikatuko da, eta bigarren bozketa honetan hautagai bakar batek ere ez badu gehiengo osoa lortzen, prozedura bukatutzat eman eta prozesu berri bat hasi beharko da.

Hirugarrena.- Nafarroako Kontseiluari jakinaraztea kontseilukide berria hautatzeko prozesua hasi dela.

Laugarrena.- Arau hauek Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agintzea.

Iruñean, 2023ko azaroaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

J saila:
PONENTZIAK

11-23/PON-00005. Proposamena, jaiotze-tasaren jaitsiera eta horrek erronka demografikoan duen eragina aztertzeko Ponentzia bat eratzekoa

LEHENDAKARITZA ETA BERDINTASUN BATZORDEAK EZETSI DU

2023ko azaroaren 15ean egindako bilkuran, Lehendakaritza eta Berdintasun Batzordeak ezetsi zuen Ponentzia bat eratzeko proposamena, jaiotze-tasaren jaitsiera eta horrek erronka demografikoan duen eragina aztertzeko. Proposamena Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioak aurkeztu zuen.

Iruñean, 2023ko azaroaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias
